

# Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

## Benetan?

BENETAN? Olsen bixki gatzgabe horien ahizpa gaztea da filmeko protagonista? Bada, argi dago familia horretan talentua nork duen. Elizabeth Olsenek ederki antzeztu du sekta batetik alde egin duen neskaren oinazea, nahasmena, pixkanaka paranoia bihurtuko dena. Eta ederki antzeztu du sekta barruan bizi dituen hasierako lilura, ondorengo beldurra. *Flashback* bidez tartekatzen dira bi istorioak pelikulan, baita Martha-ren buruan ere –hori baitu egiazko izena, nahiz eta sekta barruan Marcy May deitu, eta Marlene izenez erantzun telefonoa hartzerakoan, sektako gainerako nesken antzera–.

Bidaia psikologiko eta fisiko interesgarria garatu du zuzendariak, buruko herstura eta ahulezietan barna. Gizakia ahul bihurtu baitaiteke, menpeko, eta barrutik hustu, kasik konturatu ere egin gabe, atsegina eta jakintsua dirudien liderraren kontrolpean. Baina sektatik aterata ere nekez egokituko da protagonista ahizparen eta haren senarraren bizimodu burgesera. Kontraste handia da Martharentzat –Marcy Mayren-

*Martha Marcy May Marlene*. Zuzendaria: Sean Durkin. Aktoreak: Elizabeth Olsen, Sarah Paulson, Hugh Dancy, John Hawkes. 2011, AEB. 102 min.



tzat? Marlenentzat?–, gizarteko arauetara baino, sektako eredura ohituagoa. Trauma gehitxo, gertatu berriak. Ezinegona eta antsietatea taxuz irudikatu ditu zuzendariak, baita sekten aurpegi bikoitza ere, eguneroko lasaia eta aldi berean susmagarria.

Bai, tentsioa mantendu arren indartsuagoa izan zitekeen filma; eta batez ere bai, bukaerak –hobe esanda, bukaera ezak– herren uzten du emaitza. Baina ordainetan dugu, Sarah Paulson eta Hugh Dancy aktoreen interpretazio osatuekin batera, Olsenen aurkikuntza. Bere begirada galdua, hauskortasuna, naturaltasuna eta freskotasuna. Ibilbide oparoa aurreikus-ten diogu. Benetan.



## Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako MASTERRA 2012/2013

Euskal Herriko Unibertsitatea / Gasteizko Letren Fakultatea

Ikerketa masterra doktoretzarako aukerarekin, 3 ikerlerro hautatuz 5etik:

- Hizkuntzalaritza aplikatua
- Euskal literatura
- Euskal gramatika
- Euskararen (aurre)historia
- Euskalkiak



Eskolak urritik abendura arte eta otsailetik martxora arte; 60 kredituak urte betean edo bitan egin daitezke; urte betean eginez, goiz eta arratsalde (10:30-13:30 eta 16:00-19:00); bi urtean eginez, goizetan ala arratsaldeetan baizik ez.

Argibide akademikoak: Xabier Artiagoitia (945 013 150)

xabier.artiagoitia@ehu.es

Argibide administratiboak: Guille Ibeas (945 013 410)

guillermo.ibeas@ehu.es

Aurrematrikulazioa maiatzaren 31 arte



UPV EHU